

HERRIEN ASKAPENA



Setien Jn.aren Hitzaldi bati ohar bi

1976ko urriak 28 an hitzaldi bat eman zuen Joxe Mari Setien Jn.ak Bilboko Karmengo Parrokiaren aretoan. «Pensamiento cristiano y diálogo» izeneko astealdi hoetako batetako hitzaldia zen. Haren gaia: «La liberación de los pueblos». Ni entzule izan nintzen.

Hitzaldia amaitu ondoren, beste galderen artean, nik neuk ere bi ipini nizkion Setien Jn.ari. Eta zuzenean erantzun zidan, nere ustez.

Hala ere, ez ninduten bete haren erantzunek, ez nengoen ados. Baina ez zen polemikarik egiteko lekua eta unea, ez eta gai baten inguruan elkarrizketa luzatzekoa. Horregatik beren hartan utzi nituen galderak eta erantzunak. Gaur arte.

Baina ustekabeen, han esandakoari eta entzundakoari buruz horrialde batzu idazteko eskatu didate. Nere aldetik, bada, han ipinitako bi galderak errepikatu nahi nituzke, ez polemikarik sortzearren, baina bai garrantzizkoak direlakoan.

Galderok berauen ingurunerik gabe ipiniz gero ulertezinak izanen lirateke. Horregatik beharrezkoa derizkiot aurretik Setienen hitzaldiaren laburpentxo bat egiteari. Bestalde, hitzaldia, bere borobiltasun eta guzti, oso entzungarria izan zen, nere ustez.

Ez dut hitzaldia argitaraturik ikusi. Ez dakit argitaratuko denik ere. Horregatik, orduan hartu nituen oharrak irakurriz eta hitzaldia bera berriz magnetofoiari astiro entzunez idatzi ahal izan ditut oraingo lerro laburtu hauk. Barkatuko dit hizlariak nere laburpen hau zuzen-zuzena eta oso-oso ez baldin bada. Ez dut uste errepikatuko ditudan galderak beren ingurunerik eta esanahirik gabe geldituko direnik; izan ere, hitzaldiari zegozkion galdera bezala onhartu zituen hizlariak eta bide beretik erantzun. Hitzaldiari berari zerizkion galderak ziren nonbait.

Hitzaldiaren laburpena

Hirutan zatitu zuen Setienek bere hitzaldia: 1) Gaiaren ipintzea teologiaren eta politik filosofiaren aldetik; 2) Herrien askapenaren sozio-kultural alderdia; 3) Herrien askapenaren politik alderdia.

1. Herrien askapenaren gaia teologiaren eta politik filosofiaren aldetik. *Teologi aldetik begiraturik gero, Jesusen bere Herriarekiko jokabidea zein izan zen galdetu behar da. Erromatarren menpean zegoen herri hura: zeloteen jokabidea hartzen ote du Jesusek? Hau da, Erromaren kontrako askapen burrukari heldu? Jesusen bere herriarekiko jokabidea ez da alde horretatik ikusi behar, beste honetatik baizik: hau da, Israel Herria ez du Jesusentzat erromatarrekiko menpekotasunak definitzen, eta bai legearekiko atxekitasuna eta Jainkoa-*

rekiko zaletasuna batean jartzeak. Orduan, zein da Jesusen jokabidea honela definitu «ohi» zen Israel Herriari buruz? Israeldar «jatorrarentzat» bereizi ezinekoak ziren legearekiko atxekitasuna eta Jainkoarekiko zaletasuna: legea esatean, ordea, Israelen ohitura, instituzioak, etab. adierazi nahi zen. «Jainkoa eta Legea» Israeldar tradizionalistentzat, euskal «Jainkoa eta Lege Zaharra» dalakoa bezalatsu zen. Nola hautsi Jainkoaren eta Legearen arteko lotura hori?

Jesusek askapen izpirituala predikatzen du, barneko askatasuna. Eta horrela desmitikotu egiten du Legea eta politik askatasuna ere. Legetik libratzen du berak predikatzen duen Jainkoa eta Legearekiko askatasuna predikatzen du Jainko zaleentzat.

Horregatik galde daiteke, galdetu ere, ea judeoek beraiek garbitu ote zuten Jesus, beraien tradizioak ukatzen zituelako.

Herrien askapenaren gaiari heltzean «Herria» hitzak duen esanahia argitu beharra dago. Hitz horren adiera sarritan ikuspegi ideologikoei lotuta egon ohi da.

Euskadiri dagokionez, lau eratarata ulertu ohi da «Herria» hitza:

- Lurralde bezala
- Lurralde honetako populu bezala
- Euskal Herri Langile bezala
- Hemengo langile guztien herri bezala

Hizlariarentzat, Herria eta Nazioa oso hurbileko adigaiak dira. «Principio de nacionalidades» delakoaren eraginez, elkarte politikoentzat jo nahi izan da Nazioa, hau da, Estatuarekin berdindu.

Baina Herria —eta Nazioa, Herriaren kideko denez— ezin daiteke Estatuarekin berdindu. Zerbait dinamikoa da Herria. Eta ideologiak aparte, elementu objektiboak eta ikus daitezkeenak mamitzen dute Herria: kizkuntzak, jatorriak, etniak, erlijioak, etab.

Herriaren nazio izan nahia eta Estatu libre eta burujabe izatea ez dira berdindu ez nahasi behar.

2. Herrien sozic-kultural askapena. Kristauarentzat askapenaren erdigunea norbanakoa da, pertsona; baina norbanakoa ez da bere soiltasunean ikusi behar, eta bai bere kulturaren barnean.

Gizon guztiak ez dira, ordea, berdinak. Nahiz eta horien oinharritzko, abiaburuzko eta helburuzko batasuna aitortu eta onhartu, beren arteko desberdintasunak dituzte gizonak: eta ez noski desberdintasun pertsonalak bakarrik, eta bai beraien ingurune sozio-kulturalari lo-

turik dauden desberdintasunak ere. Egia da, bai, desberdintasun horiek gizonen arteko erabateko komunikazioa eragozten dutela; baina ez dute gizonen arteko elkartasuna zatikatzen. Alderantziz, desberdintasun sozio-kultural horik eta horietatik datozen desberdintasun pertsonalak, giza sormenaren mila ahalbideren agerkari bezela ikusi behar dira.

Norbanakoaren nortasuna eta askatasuna zaintzeak, norbanako hori bere ingurune sozio-kultural konkretuan hartzea eskatzen du. Horregatik, norbanakoaren askapena eta honen eskabide guztiak zaintzeak, horren herriaren askapena eta horretarako neurriak hartzea eskatzen ditu. Hori esan beharra dago, nahiz eta oso gogotan hartzekoa izan, inoren nortasuna eta askatasuna ez dela norbere herriaren kulturaren barnean irensten: Ingurune sozio-kulturalak ez dio norbanakoari bere askatasun pertsonala kendu behar. Bakoitza libbre da bere kulturari buruz ere.

Honela ikusten badira norbere askapenaren eta herriaren askapenaren arteko lotura, arazo bat sortzen da Estatu baten barnean dauden Herri txikiei edo gutiengo sozio-kulturei buruz. Eta bi jokabide nabarmen daitezke arazo honen aurrean: Estatuaren barneko herrien arteko etsaigoa eta elkarrezina, ala Estatuaren aldetik herrien arteko eraberdintasun bat ezartzea.

Herri txikien eskubideak jatorrizkoak dira, eta ez daude geingoaren edo Estatuaren erabakiari edo antolamoldeari loturik. Gutiengo sozio-kulturek beren hizkuntzarekiko eta kultura osoarekiko dituzten eskubideak ez daude erizpide kuantitatiboek baldintzaturik.

Baina herri txikiek beren nortasuna gordetzeko eta hedatzeko duten eskubidea baietzatzea ez ote dago historiaren dinamika honen kontra: hau da, historiak omen daraman kultura guztien batasun eta berdintasun bidearen kontra? Zernola joango den historia asmatzen ibili gabe ere, esan behar dena zera da: herriek eta kulturek beren arteko irekitasuna behar dutela, eta aldi berean bakoitzaren berreizgarriak zaindu.

Esan den guztiagatik, Estatu eta Herri-Nazioa ezin daitezkeela berdinu esan behar da: Estatu baten barnean herri desberdinak gerta daitezke.

Baina arazo sozio-kultural bezela ikusi honek, politikaren aldetik bere konponbide konkretuak behar ditu.

3. **Herrien askapenaren politik alderdia.** Lehen esandakoaren arabera, pertsona begirunez erabiltzea eta gizartean dagoen haniztasun sozio-kulturala onhartzea gauza berbera dira; horregatik politik agintea dutenek, norbanakoak bere nortasuna lantzen dueneko herri txikien edo gutiengoen bereizgarriak gorde eta zaindu behar dituzte begirune osoz. Areago, Estatu barnean, herri txiki baten kontzientzia pizten ari dela ikustean, begirune berberaz jokatu behar dute, nahiz eta horrela Estatuaren nazio batasuna hausten dela ikusi.

Baina Estatuaren eta barneko Herri edo Nazioen arteko harremanak era desberdinetara antola daitezke, politikaren aldetik; horretarako ez dago formula bakarrik: eskualdeen formula politikoa, nazio askoko Estatuaren formula, etab.

Onharrezinekoa zera da: Estatua eta nazioa derrigorrez berdindu nahia: Estatuaren batasunari eusteko ezin daiteke kultur desberdintasuna ukatu, gizarte osoa berdintasun sozio-kulturalera behartuz. Bestalde gogotan hartu behar da, batasun sozio-kulturala Estatuaren batasunaren oinharri izango bada, batasun hori guztiek libreki onhartu behar dutela.

Estatu baten barnean nazio askoren arteko harremanak antolatzeko bide bat baino gehiago da: Herrien sena politikoak erabakiko du zein den une bakoitzean konpobiderik egokiena eta bidezkoena. Estatua osatzen duten guztiek erabaki behar dute hori. Eta hauek Estatuaren batasunari eutsi nahi badiote, horretarako eskubidea du Estatuak.

Izatez, Estatuaren batasuna ez da berez etikak eskatzen duena, arazo politikoa baizik. Horregatik Estatu barnean separatismoa defendatzea bidezkoa izan daiteke etikaren aldetik, Estatuaren batasuna defendatzea izan daitekeen bezala.

Honela, bada, Estatua osatzen duten guztiei dagokie Estatu barneko gutiengo edo herri txiki baten autonomia nola eratu behar den erabakitzea; etikaren aldetik, Herri txiki bat Estatutik bereiz ditezke, beste Estatu bat eratzeko. Baina Estatua osatzen duten herri eta herkide guztiei dagokie Herri txiki baten autodeterminazioari buruz erabakitzea.

Hitzaldiari ohar bi

Setin J.aren bitzaldia «Herrien askapenari» buruz izan zen, orokorki hartuz. Baina arazoa eta erantzunak berak ipini zituen bezala, zuzen-zuzenean Euskadiri egokion hitzaldi osoa. Behin baino gehiagotan aipatu ere egin zuen Euskadi. Alde honetatik konkretu xamarra ere izan zen.

Honexegatik ere, galderak oso konkretuak izan ziren, edota Euskadi konkretu honi begira eginak. Nik neuk ere kezka eta asmo horiek eraginda ipini nituen neure bi galdera-arazoak. Ez ditut orain hitzezhitzez hemen errepikatuko, baina orduan ipini nituen bi arazoak beren hartan emango.

1. **Euskadiren soziokulturazko askapena eta askapen sozioekonomikoa.** Setienek, herria eta nazioa bi adigaiak oso hurbileko joaz, elementu objektibo batzu hartu nahi izan ditu, bere ustez herria definitzen dutenak: hizkuntza, jatorria, etnia, erlijioa, etab. Euskadik ba ote ditu elementu horik, herri bezela onhar dezagun? Nere ustez bai. Eta alde horretatik, Euskal Herri eta Euskal Nazio bat badela baieztatuko dut. Nere eritziz, Setienek ere hala uste du.

Baina, honelako definizio objektibo bat eman aurretik, Euskadin dabiltzan Herriari buruzko lau adiera «ideologiazko» ematen ditu hizlariak: lehen aipatu ditut. Eta iruditzen zaidanez, lehenengo biren aldera ixuri du bere hitzaldia. Hau da, Herria eta Nazioa elkarrekin alderatuz, eta herria kultura **tradizionalaren** aldetik —nahiz eta kultura eta herria higikorrek direla aitortu— definituz, ideologiazko adiera haien artean, bere hautapena-edo adierazi du. Eta orduan, Euskal Herriaren askapen arazoa ontxatxe finkatu du: Estatuaren eta Estatu barneko Herri txikien edo gutiengoaren arteko harreman eta eraketa bezala. Hitz batez esanez, Setienek Herrien askapen nazionalari erantzun nahi izan dio bere hitzaldian.

Baina Euskal Herriaren askapena beste bidetatik ere badao, hau da, sozioekonomiazko haremanetatik. Euskadi, Herri bezala, kulturaren bidez definitzen baldin badugu —eta egokia iruditzen zait—, kultura hori zerbait dinamiko bezala hartu behar dugu, kreazio bezala, eta ez tradizio bezala bakarrik; kultura honela ulertzen baldin badugu, ordea, lana eta lanbidea kulturaren definizioaren oinharrian daude.

Izan ere, herriak lanaren bidez «lantzen» du bere ingurunea eta kultura sortzen eta egiten. Horregatik, Setienek aipatzen dituen Herriaren eta kulturaren elementu objektiboen artean, lana ere sartu beharra dago.

Orduan Euskal Herria Euskal Herri Langile bezala definitzen dugu; eta Herri honen askapenaren arazoaren muin-muinekoa da askapen sozioekonomikoa, hau da, lanaren harremanetatik datozkien zapalkuntza guztiak gainditzea.

Bestalde, ez dago Euskadiren askapen nazionala eta soziokulturazkoa, alde batetik, eta sozioekonomikoa, bestetik, bereiztea, bereiztea baldin badago ere. Ez dago alde batetako askapena bestetakoa gabe aztertzerik ere, nere ustez. Izan ere, Estatuak Herri txikiaren gain ezartzen duen zapalkuntza sozio-kulturako, Estatu zentralista eta erdirakoi horrekin bategiten duen Oligarki ekonomikoaren zapalkuntza sozioekodomoarekin lotuta doa neurri oso-oso handi batetan, hemen behintzat.

2. **Euskadiren autodeterminazioa.** Setienek eritziz, Euskadiren autodeterminazioa, Espainiako Estatu osoak erabakitzekoa da, ondo ulertu baldin badut; ez da Euskadiren eskuetan egon beharko lukeen eskubidea.

Hizlariaren arrazoinketa osoa, uste dudanez, autonomiaren eta autodeterminazioaren arteko bereizkuntzan datza. Autonomia abiaduru edo printzipio etikoa den bezala, autodeterminazioa abiaburu politikoa da. Horregatik, elkarte politikoak, hau da, Estatuak, bere ustez, erabaki behar duen zerbait da autodeterminazioa.

Alde batetik, ez dut ikusten «autodeterminazio» modu hori nola izan daitekeen auto-determinazioa, Estatuak osatzen duten beste herriek erabaki behar baldin badute. «Hetero-determinazioa» litzateke hori.

Baina neure galdera eta oharra beste honetatik doaz batez ere, ez hitzen aldetik. Euskadi, herri bat baldin bada —eta hori onhartzen du Setienek—, ez ahal du, besterik gabe, bere nortasun **politikoarentzako** oinharria, nahiz eta orain arte edo azken aldi honetan nortasun hori gauzatu ahal ez izan? Autodeterminazio aukera politikoa baldin bada, zergatik jartzen da politikaren subjektu bakarra bezala Estatuak?

Estatu barneko beste herrekiko elkartasun historikoa aipatu du... Baina zein mailatan dago elkartasun eta solidaritate hori? Etikaren

mailan ala politikaren mailan? Etikaren mailan baldin badago, esan beharra dago maila horretako arazoak konponbide desberdinak ukan ditzaketela politik mailan, eta herri bat besteekin elkartuago egon daitekeela, bere Estatu berezia lortu duenean, guztien artean Estatu bat osatzen dutenean baino. Politikaren mailan baldin badago, nere ustez zera gertatu da hor: berez etikazko dena politik modu batek bere oinharritzat hartu duela, baina berdin har lezake kontrako politikak ere. Hau da, eta konkretuago esanez, Espainia Estatuaren batasunaren aldekoek, Estatu orain osatzen duten herri edo nazio guztien solidaritate historikoa aipatzen eta defendatzen baldin badute, Euskadiren independentziaren aldekoek —eta independentzia aukera politiko bezela bidezkotzat jo du Setienek—, erantzuna erraza dute: Euskadiri gainera ezarri egin zaio solidaritate eta batasun hori, eta, beraz, askatasunaren izenean hain zuzen ere, horrelako zapalkuntzaren kontra jotzeko eskubidea dauka, independentziaren alde borroka eginez.

Beraz, arazo honen sustraia eta gakoa honetanxe legoke, nere ustez: Herriak —nazioak—, herri denez, ba ahal du politik nortasunik? Nere ustez bai. Eta orduan Herria gauza da autodeterminazioaren erabaki politikoa bere aldetik hartzeko; eta etikaren aldetik ez legoke kontrakorik, Herri batek bere burua politik aldetik determinatzen baldin badu, nahiz eta Estatu osatzen duten beste herriak edo jendeak kontrakoak izan. Besterik litzateke politik aldetik gertagarria den ala ez hori, eta zein neurritan eta nola den gertagarria. Baina hori politik indarren arazoa da, eta ez etika politikoa.

Orain arago joan daiteke azkenik eginiko galdera horretan: Herria —nazioa— ez ahal da politik subjektua Estatu bera baino lehenago? Nere ustez bai. Beraz, politik filosofiaren aldetik Herriari dagokio aurren-aurren autodeterminazio politikoa erabakia hartzea, eta ez Estatu osoari.

Guzti honek ez du esan nahi, Herrien arteko solidaritateak ez duenik zer esanik politika modu bat erabakitzean. Eta hain zuzen ere Herria, herri langile bezala ulertzen denean, solidaritate eta elkartasun horik, printzipio politiko bihurtzen dira. Baina, printzipio politiko hori politika modu desberdinez bete daiteke. Azkenik, «interdependentzia» hobeto betetzen da independentzian eta ez dependentzian.

Paulo Agirrebaltzategi